



BALOREZKO PROPOSAMENA

"Eman eta Jaso" izena hautatzea oso esanguratsua eta aproposa da arropa-emate eta banaketa enpresarako. Alde batetik, mezua zuzena da enpresaren helburua argi azaltzen delako, hau da, mezu sinplea eta indartsua da. Beste aldetik, "Eman eta Jaso" izenak enpresaren jarduera nagusia islatzen du, elkartasuna, jasangarritasuna eta birziklapenaren baloreak adieraziz.

Ideia:

Internet bidezko aplikazio bat prestatuko dugu, daukagun arropa internet bidez ikusi ahal izateko. Arropa borondatez emango dituzte pertsonak eta doainik jasoko dute besteek. Gure web orrian egongo da arropa hori eskainita, pertsonak ikus ahal dezaten. Arropa guzti hori segurtasun bat mantentzeko eta ziurtarazteko benetan arroparen beharra dutela, lokal batean egongo da, eta han bertan eman eta jasoko da. Online emango da izena, jasoko duen jendeak benetan arropa behar dutela (dirua ez daukate, ahultasun egoeran daude...) ziurtarazteko eta paperak edo bestelakoak eskaini ahal izateko.

BALIOZKO PROPOSAMENAK:

Gure proposamenak, segurtasuna eta fidagarritasuna eskaitzen du, bai emango duenarentzat eta baita hartuko duenarentzat ere.

Gure ideia ehun hondakinen edukiontzitik atera dugu. Jendeak borondatez han botatzen duelako arropa baina ez dakigu benetan zein den helmuga, hau da, ez dakigu noren eskuetara iritsiko den ezta botako den edo ez ere.

Hauek dira gure enpresaren balioak eta helburuak

- **Eragin soziala:** Zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonen bizi-kalitatea hobetzen laguntzen du, hau da, behar duten erabiltzaileei eskaintzen diogu. Hala nola kale eskatzaileak, baliabide falta daukaten familiak eta/edo etorkinak.
- **Jasangarritasuna:** Arropa berrerabiltzea eta birziklatzea sustatzen du, ehungintzako hondakinak murriztuz.
- **Ekonomia Zirkularra:** Baliabideen erabilera maximizatzen duen eredu ekonomikoa bultzatzen du, arropa zabortegetan bukatzea saihestuz.





- **Inklusioa eta elkartasuna:** Komunitatean elkarrekiko laguntzaren eta elkartasunaren balioak sustatzen ditu.
- **Enplegua sortzea:** Lan-aukerak sortzen ditu, bereziki sektore kalteberetan edo gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden sektoreetan. Udaletxeak ordaintzen ditu soldatak.
- **Ingurumen-kontzientzia:** Kontsumo arduratsuari eta produktuei bigarren bizitza bat ematearen garrantziari buruz hezten du.